

AURKEZPENA

SAIOAREN NONDIK NORAKOA

Helburua:

Ebaluazio Diagnostikoan **DBHko 2. mailako Matematikako** proben inguruko informazioa partekatzea: egoerak sortzeko erabiltzen den ISEI-IVEIren Marko Teorikoa, egoerak eta itemak, item liberatuak, besteak beste.

Saioaren antolaketa:

- o **11:00-12:00.** Ordu beteko online saioa (grabatuta geratuko da). Saioan zehar, zalantzak eta galderak bidali ahal dizkiguzue. Gure lankideek jasoko dituzte.
- o **12:00-12:30.** Ordu erdiko deskonexioa. Ordu erdi honetan egindako galderen eta zalantzen prestaketa egingo da ISEI-IVEIn.
- o **12:30-13:00.** Egindako galderak eta zalantzak argituko dira online (grabatuta geratuko da).

ZER EBALUATZEN DU ISEI-IVEIK?

ED25:

Etapa Erdian (LH4 eta DBH2) Matematikarako kompetentzia: Testuinguruaren arabera aplikatutako problemak planteatuko dira.

Egoerak diseinatzeko ISEI-IVEIren Marko Teorikoa: <https://isei-ivei.euskadi.eus/eu/marcos-nuevos>

Saioaren lehen zatiaren antolaketa:

- Aurkezpena
- Marko teorikoaren azalpena
- Itemen funtsezko ezaugarriak
- Adibideak
- Item liberatuak

ADIBIDEAK

MAITE TRIATLOIA PRESTATZEN

Triatloia hiru kirol-diziplina biltzen dituen kirol olinpikoa da:: igeriketa, txirrindularitza eta martxa lasterketa.

Proba batetik bestera ez dago etenik, eta horiek modu ordenatuan gauzatzen dira.



Maite triatloia prestatzen hasi da eta zenbait kirol-diziplinetan arazoak sortu zaizkio.

Ea laguntzen diogun!

ITEM 1

Triatloi Olinpikora aurkeztuko da Maite eta prestatzen aritu da. Azken hamabost egun hauetan egunean ordu bete igeriketa egin behar duela argi dauka, baina lasterketako eta txirrindularitzako ordu kopurua finkatu behar du.



Egunero korrika egingo dituen ordu kopuruari 'x' deitzen baldin badiogu, eta txirrindularitzan ordu horien bikoitza ibiliko dela kontuan hartuta, honako galdera honi erantzun:


Lau aukera hauetatik, **zein da hamabost egun hauetan kirola egiteko ordu kopurua adierazten duen funtzioa?**

- a) $f(x) = 15(x + x + 2x)$
- b) $f(x) = 15 + x + 2x$
- c) $f(x) = 15 + 3x$
- d) $f(x) = 15(1 + 3x)$

EGOERA	MAITE TRIATLOIA_PRESTATZEN
DIMENTSIOA	Dimentsio 3: KONEXIOAK
EBALUAZIO IRIZPIDEA	DBH2_11_LH6_9_10_ Zenbakizko ereduak (arrazionalak), funtzionalak (afinak eta alderantzizko proportzionaltasunekoak), geometrikoak, banaketa estatistikoak eta zorizko egoerak nahitaez matematikoak ez diren testuinguruekin edo beste ikasgai batzuekin ezagutzea, interpretatzea eta erlazionatzea, eta horien ezaugarriak eta propietateak norberaren arloko edo diziplinarteko egoerak ebazteko erabiltzea.
	Egoera errealetan aljebraikoki adierazitako funtzioak identifikatzea eta erlazionatzea.
LORPEN ADIERAZLEA	3.11.4. Aljebraikoki adierazten du funtzio afin baten edo alderantzizko proportzionaltasun baten bidez modelizatu den egoera bat
MAILA	3.11.4.1. Aztertu beharreko taulen eta grafikoen irakurketa kuantitatiboa egiten du, eta funtzio afinaren bidez egoera modelizatu baten erlazio aljebraikoak adierazten ditu.
SAILKAPENA	3.11.4.1
SOLUZIOA	d) $f(x) = 15(1 + 3x)$
KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA	KONPETENTZIA ESPEZIFIKO 6
HOBEKUNTZAK	

ITEM 2

Igeriketa-diziplinan, Getaria-Zarautz egin behar du eta prestatzeko Maitek honako krokis hau egin du:



Gorritz dagoen bidea da laburrena, zein distantziaz ari gara?

(Emitza biribildu ehunenetara)


- a) 1,25 km
- b) 1,50 km
- c) 1,75 km
- d) 2,17 km

EGOERA	MAITE TRIATLOIA PRESTATZEN
DIMENTSIOA	Dimentsio 1: PROBLEMEN EBAZPENA
EBALUAZIO IRIZPIDEA	DBH2_3__LH6_2_ Geometria analitiko lauari eta planoaren eta espazioaren irudikapenei buruzko ezagutzak erabiltzea eta espazioen luzerak, azalerak eta bolumenak zenbatetea eta kalkulatzeko, eta neurketa-prozesuak ulertzea, zenbatespenaren edo kalkuluaren emaitza neurketa-unitate egokienean adierazita.
	Geometria analitiko lauari buruzko oinarriko ezagutza geometrikoak erabiltzea problemak ebazteko.
LORPEN ADIERAZLEA	1.3.7. Pitagorasen teorema aplikatzen du elementu geometrikoen neurketari buruzko problemak ebazteko.
MAILA	1.3.7.2. Pitagorasen teorema aplikatzen du, objektuak eta distantziak neurtzeari buruzko problemak ebazteko.
SAILKAPENA	1.3.7.2.
SOLUZIOA	d)2,17 km
KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA	KONPETENTZIA ESPEZIFIKO 1
HOBEKUNTZAK	

ITEM 3

MENDIAN GORA

Txirrindularitza proba Getarian egingo da eta Maitek San Anton mendia igo behar du bizikletaz.



150 m eginak dituela jakinda, zenbat metro falta zaizkio tontorreraino?

- a) 225 m
- b) 375 m
- c) 600 m
- d) 650 m

EGOERA	MAITE TRIATLOIA PRESTATZEN
DIMENTSIOA	Dimentsio 1: PROBLEMEN EBAZPENA
EBALUAZIO IRIZPIDEA	DBH2_3__LH6_2_ Geometria analitiko lauari eta planoaren eta espazioaren irudikapenei buruzko ezagutzak erabiltzea problemak ebazteko. Mundu fisikoko objektuen eta espazioen luzerak, azalerak eta bolumenak zenbatestea eta kalkulatzeko, eta neurketa-prozesuak ulertzea, zenbatespenaren edo kalkuluaren emaitza neurketa-unitate egokienean adierazita.
	Geometria analitiko lauari buruzko oinarritzko ezagutza geometrikoak erabiltzea problemak ebazteko.
LORPEN ADIERAZLEA	1.3.6. Thalesen teorema aplikatzen du eta triangeluen antzekotasuna erabiltzen du problema geometrikoak ebazterako.
MAILA	1.3.6.3. Triangeluen antzekotasuna erabiltzen du eta Thalesen teorema aplikatzen du geometria problemak ebaztean
SAILKAPENA	1.3.6.3.
SOLUZIOA	c)600m
KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA	KONPETENTZIA ESPEZIFIKO 1
HOBKUNTZAK	

ITEM 4

BIRAKA

Triathloneko hiru txirrindulari batera eta pista zirkular baten puntu beretik irteten dira.

8, 10 eta 12 segundo behar izan zituzten, hurrenez hurren, Itzuli bakoitza egiteko.

Zenbat buelta eman ditu txirrindulari bakoitzak berriro eta aldi berean irteera-marratik igaro direnean?



- a) 8,10,12 buelta, hurrenez hurren.
- b) 12, 10, 8 buelta, hurrenez hurren.
- c) 15,10,12 buelta, hurrenez hurren.
- d) 15,12,10 buelta, hurrenez hurren.


EGOERA	MAITE TRIATLOIA PRESTATZEN
DIMENTSIOA	Dimentsio 3: KONEXIOAK
EBALUAZIO IRIZPIDEA	DBH2_10_LH6_7_8 Matematikaren zatiak erlazionatzea, arloaren barruko egoerak ebazteko.
	Hizkuntza aljebraikoa, bere eragiketak eta propietateak erabiltzea, zenbakizko, alfanumeriko, geometriko eta antzeko erlazio matematikoak adierazteko eta problemak ebazteko.
LORPEN ADIERAZLEA	3.10.3.Ezagutza aljebraikoa integratzen du problemen ebazpenarekin lotutako hainbat testuingurutan
MAILA	3.10.3.2. Ezagutza aljebraikoa integratzen du problemen ebazpenarekin erlazionatutako testuinguruetan.
SAILKAPENA	3.10.3.2
SOLUZIOA	d)15,12,10 buelta, hurrenez hurren.
KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA	KONPETENTZIA ESPEZIFIKO 5
HOBEKUNTZAK	

ITEM 5

MARTXA-LASTERKETA

Martxa-lasterketan, Maitek 7 km/h-ko abiadura darama.

Alboko grafikoan oinarrituz, abiaduraren arabera, **zenbat kcal gastatuko du Maitek lehenengo 30 minutuetan?**



- a) 6 kcal
- b) 36 kcal
- c) 180 kcal
- d) 210 kcal


EGOERA	MAITE TRIATLOIA PRESTATZEN
DIMENTSIOA	Dimentsio 4: KOMUNIKAZIOA ETA IRUDIKAPENA
EBALUAZIO IRIZPIDEA	DBH2_12_LH6_11_12_13_ Kontzeptuak, prozedurak, arrazoibideak, erlazio kualitatiboak eta kuantitatiboak eta elementu matematikoak dituzten informazioak irudikatzea, IET-ak (Ikaskuntzarako eta Ezagutzarako Teknologiak) erabiliz, hala badagokio.
	Erlazio funtzional sinpleen irudikapenak egitea, interpretatzea eta aztertzea
LORPEN ADIERAZLEA	4.12.5. Funtzio baten zenbakizko balioak identifikatzen eta kalkulatzeko dituzte, eta horiekin taula esanguratsua eta grafikoa egiteko gai da.
MAILA	4.12.5.1. Funtzio baten zenbakizko balioak identifikatzen eta kalkulatzeko dituzte kasu errazetan.
SAILKAPENA	4.12.5.1.
SOLUZIOA	c)180 kcal
KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA	KONPETENTZIA ESPEZIFIKO 7
HOBETUNTZAK	

ITEM 6

Maitek 1,61 m neurtzen du eta 65 kg pisatzen du. Triatloia prestatzeko zenbat kilokaloriako dieta behar duen erabakitzen ari da.

Lehenik, egin behar duen jarduera fisikoen energia kontsumoa zenbatekoa duen aztertuko du. Horretarako beharrezkoa du jakitea jarduera fisiko bakoitzak duen energia-kontsumoa, kilogramoko eta minutuko.

Hona hemen taula:

KORRIKA EGITEA	0,141 kcal, kilogramoko eta minutuko	
BIZIKLETAN IBILTZEA	0,150 kcal, kilogramoko eta minutuko	
IGERI EGITEA	0,166 kcal, kilogramoko eta minutuko	

Egunero, ordubete korrika egin, hiru ordu eta laurden bizikletan ibili eta ordu-erdi igeri egiten badu, zenbat kcal kontsumituko ditu?

- a) 29,71 kcal
- b) 42,69 kcal
- c) 2774,85 kcal
- d) 4467,51 kcal

EGOERA	MAITE TRIATLOIA PRESTATZEN
DIMENTSIOA	Dimentsio 1: PROBLEMEN EBAZPENA
EBALUAZIO IRIZPIDEA	DBH2_1_LH6_2_ Eguneroko bizitzako problemak, beste ikasgai batzuetakoak eta matematikakoak ebaztea, hainbat zenbaki-mota, horien eragiketak eta propietateak, eta metodo aljebraikoak erabiliz, kalkulu-modu egokiena erabiliz eta emaitza testuingurura egokitzea baloratzuz.
	Hainbat zenbaki-mota (osoak eta arrazionalak) eta zenbaki-adierazpenak (zatikiak, hamartarrak eta portzentajekoak) esku hartzen duten kalkuluak egitea, propietaterik garrantzitsuenak erabilia eta kalkulu-modurik egokiena segurtasunez aplikatuta, eta eguneroko egoeretatik datozen portzentajeen kalkuluei lotutako problemak ebaztea, prozedurarik egokiena erabilia
LORPEN ADIERAZLEA	1.1.1. Zenbakizko ezagutzak integratzen ditu, zenbaki hamartarren biribilketa barne, hurbilketa-maila zehaztuz, eta buruketak eta ariketak ebazteko aplikatzen ditu.
MAILA	1.1.1.2. Zenbakizko ezagutzak integratzen ditu, zenbaki hamartarren biribilketa barne, eta problemak eta ariketak ebazteko erabiltzen ditu.
SAILKAPENA	1.1.1.2.
SOLUZIOA	c)2774,85 kcal
KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA	KONPETENTZIA ESPEZIFIKO 1
HOBEKUNTZAK	

ITEM 7

Maiteri proteina ugariko dieta bat hartzeko esan diote. Gaur hauxe bazkaldu du: 350 g dilistak, 50 g ogi, 250 g izokin eta 100 g sagarra.

Taula honetan adierazten da kontsumitu dituen elikagaien 100 g-tan dagoen proteina kopurua:

	PROTEINAK (100 g-tan)	
DILISTAK	25 g	
OGIA	8 g	
IZOKINA	18 g	
SAGARRA	0,3 g	

Zenbat proteina hartu du bazkari horretan?

- a) 51,3 g
- b) 136,8 g
- c) 750,0 g
- d) 801,3 g

EGOERA	MAITE TRIATLOIA PRESTATZEN
DIMENTSIOA	Dimentsio 1: PROBLEMEN EBAZPENA
EBALUAZIO IRIZPIDEA	DBH2_2_LH6_2 Zenbakizko proportzionaltasuneko eta geometrikoko erlazioak identifikatzea, eta eguneroko bizitzako egoeretan problemak ebazteko erabiltzea.
	Zenbakizko eta geometrikoko proportzionaltasunaren erlazioak (eskalak) identifikatzea, eguneroko bizitzako egoeretan proportzionaltasunari lotutako problemak ebazteko erabiliz.
LORPEN ADIERAZLEA	1.2.3. Proportzionaltasunarekin lotutako buruketak ebazten ditu, hainbat estrategia aplikatuz (unitatera murriztea, proportzionaltasun-arrazoia lortzea, taulak erabiltzea...).
MAILA	1.2.3.1. Proportzionaltasun zuzenarekin lotutako eguneroko problemak ebazten ditu, hainbat estrategia aplikatuta.
SAILKAPENA	1.2.3.1.
SOLUZIOA	b)136,8 g
KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA	KONPETENTZIA ESPEZIFIKO 1
HOBEKUNTZAK	

PASTELA

Herriko jaietan 3 m luze pastel handi bat egitea erabaki dute bertan biltzen diren pertsonen artean banatzeko.

Jai batzordeko arduradunak pastela egin ahal izateko, neurri zehatzak errezeta-liburu batean begiratu ditu eta 8 pertsonarentzako errezeta hau aurkitu du:

8 PERTSONARENTZAKO PASTELA

- *0,5 kilogramo irin*
- *2 arrautza gorringo*
- *1 arrautza osorik*
- *200 gramo azukre*
- *200 gramo gurin*
- *Gatz pixka bat*
- *10 tanta pattar*
- *Limoi azal birrindua*



ITEM 1

1200 jankide bildu baldin badira, zenbat kilogramo irin behar izango dira pastel hori egiteko?

60 kilogramo

75 kilogramo

96 kilogramo

300 kilogramo

EGOERA	PASTELA
DIMENTSIOA	Dimentsio 1: PROBLEMEN EBAZPENA
EBALUAZIO IRIZPIDEA	DBH2_2__LH6_2 Zenbakizko proportzionaltasuneko eta geometrikoko erlazioak identifikatzea, eta eguneroko bizitzako egoeretan problemak ebazteko erabiltzea.
	Zenbakizko eta geometrikoko proportzionaltasunaren erlazioak (eskalak) identifikatzea, eguneroko bizitzako egoeretan proportzionaltasunari lotutako problemak ebazteko erabiliz.
LORPEN ADIERAZLEA	1.2.3. Proportzionaltasunarekin lotutako buruketak ebazten ditu, hainbat estrategia aplikatuz (unitatera murriztea, proportzionaltasun-arrazoia lortzea, taulak erabiltzea...)
MAILA	1.2.3.2. Proportzionaltasun zuzenarekin lotutako problemak ebazten ditu, hainbat estrategia aplikatuta
SAILKAPENA	1.2.3.2
SOLUZIOA	b) 75 kilogramo
KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA	KONPETENTZIA ESPEZIFIKO 1
HOBEKUNTZAK	

ITEM 2

Pastela egingo duen pastelgileak kalkulatu du 12 ordu behar izango dituela pastel-orea prestatzeko, berak bakarrik lan egiten badu. Arinago egin ahal izateko, beste bi laguni laguntzeko eskatu die.

Hirurek pastelgilearen erritmo berean lan egingo dutela suposatzen badugu, zenbat ordu behar izango dituzte pastel-orea prestatzeko?

- 2 ordu
- 3 ordu
- 4 ordu
- 6 ordu

EGOERA	PASTELA
DIMENTSIOA	Dimentsio 1: PROBLEMEN EBAZPENA
EBALUAZIO IRIZPIDEA	DBH2_2__LH6_2 Zenbakizko proportzionaltasuneko eta geometrikoko erlazioak identifikatzea, eta eguneroko bizitzako egoeretan problemak ebazteko erabiltzea.
	Zenbakizko eta geometrikoko proportzionaltasunaren erlazioak (eskalak) identifikatzea, eguneroko bizitzako egoeretan proportzionaltasunari lotutako problemak ebazteko erabiliz.
LORPEN ADIERAZLEA	1.2.1 Bi magnituderen arteko zuzeneko eta alderantzizko proportzionaltasuneko, eta proportzio konposatuko problemak identifikatzen eta ebazten ditu eguneroko testuinguruetan.
MAILA	1.2.1.2. Bi magnituderen arteko alderantzizko proportzionaltasun-erlazioak identifikatzen ditu. Bi magnituderen arteko zuzeneko proportzionaltasuneko problemak ebazten ditu.
SAILKAPENA	1.2.1.2.
SOLUZIOA	c) 4 ordu
KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA	KONPETENTZIA ESPEZIFIKO 1
HOBEKUNTZAK	

ITEM 3

Pastela egiteko okindegi-labe elektriko handia erabili da. Labea piztu eta 4 minutu geroago pastela sartu zen. Labea itzali eta handik 2 minutura atera zen pastela.

Honako grafiko honek labe barruan lortutako temperatura adierazten du pasatutako denboraren arabera.




Zenbat denbora egon zen pastela labe barruan?

- 39 minutuz
- 41 minutuz
- 43 minutuz
- 45 minutuz

EGOERA	PASTELA
DIMENTSIOA	Dimentsio 4: KOMUNIKAZIOA ETA IRUDIKAPENA
EBALUAZIO IRIZPIDEA	DBH2_12__LH6_11_12_13_ Kontzeptuak, prozedurak, arrazoibideak, erlazio kualitatiboak eta kuantitatiboak eta elementu matematikoak dituzten informazioak irudikatzea, IET-ak (Ikaskuntzarako eta Ezagutzarako Teknologiak) erabiliz, hala badagokio.
	Erlazio funtzional sinpleen irudikapenak egitea, interpretatzea eta aztertzea
LORPEN ADIERAZLEA	4.12.4. Aztergai diren taulak eta grafikoak aztertzen ditu, kuantitatibo eta kualitatiboki.
MAILA	4.12.4.3. Kualitatiboki aztertzen ditu funtzio linealen, afinen, konstanteen eta konposizioen grafikoak.
SAILKAPENA	4.12.4.3
SOLUZIOA	c) 43 minutuz
KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA	KONPETENTZIA ESPEZIFIKO 7
HOBEKUNTZAK	

ITEM 4

3 metroko pastela lekuz aldatzean, bi zatitan apurtu da, irudian ikusten den bezala:



Zati bat bestea baino 80 zentimetro luzeagoa da.

Zein da zati laburraren luzera?

Adierazi erantzuna metrotan.

EGOERA	PASTELA
DIMENTSIOA	Dimentsio 3: KONEXIOAK
EBALUAZIO IRIZPIDEA	DBH2_11__LH6_9_10_ Zenbakizko ereduak (arrazionalak), funtzionalak (afinak eta alderantzizko proportzionaltasunekoak), geometrikoak, banaketa estatistikoak eta zorizko egoerak nahitaez matematikoak ez diren testuinguruekin edo beste ikasgai batzuekin ezagutzea, interpretatzea eta erlazionatzea, eta horien ezaugarriak eta propietateak norberaren arloko edo diziplinarteko egoerak ebazteko erabiltzea.
	Eguneroko bizitzako eta beste ikasgai batzuetako egoerak hizkuntza aljebraikoarekin lotzen ditu, lehen mailako eta bigarren mailako ekuazioen eta bi ezezagun dituzten bi ekuazio linealetako sistemak planteamenduan eta ebazpenean txertatzeko
LORPEN ADIERAZLEA	3.11.1. Lehen eta bigarren mailako ekuazioen bidez, eta bi ezezagunetako eta bi ekuazio linealetako sistemen bidez adieraz daitezkeen egoerak hizkuntza aljebraikora itzultzen ditu.
MAILA	3.11.1.3. Lehen eta bigarren mailako ekuazioen bidez, eta bi ezezagunetako eta bi ekuazio linealetako sistemen bidez, adieraz daitezkeen egoerak hizkuntza aljebraikora itzultzen eta interpretatzen ditu, eta ondorio egokiak lortzen ditu.
SAILKAPENA	3.11.1.3
SOLUZIOA	1,10 metro
KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA	KONPETENTZIA ESPEZIFIKO 6
HOBEKUNTZAK	

ITEM 5

Pastel banatu ondoren, pastelaren % 80 kontsumitu dela kalkulatu da.

Pastelaren-zatikari haueetatik, zein dagokio kontsumitu **EZ** den zatitari?

$\frac{2}{10}$

$\frac{7}{10}$


$\frac{8}{10}$

$\frac{8}{12}$

EGOERA	PASTELA
DIMENTSIOA	Dimentsio 3: KONEXIOAK
EBALUAZIO IRIZPIDEA	DBH2_10__LH6_7_8 Matematikaren zatiak erlazionatzea, arloaren barruko egoerak ebazteko.
	Zenbaki motak eta horien adierazpenak erabiltzea eguneroko bizitzarekin lotutako informazioak aztertzekeo
LORPEN ADIERAZLEA	3.10.2. Portzentajeak dagozkien zenbakizko zatiki eta hamartarrekin erlazionatzen ditu, irudikapen horien artean zenbakizko sare bat ezarriz.
MAILA	3.10.2.2. Portzentajeak dagozkien zenbaki hamartar eta zatikiekin erlazionatzen ditu.
SAILKAPENA	3.10.2.2.
SOLUZIOA	a) 2/10
KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA	KONPETENTZIA ESPEZIFIKO 5
HOBEKUNTZAK	

ITEM 6

Egindako pastelak itxura hau dauka:



Goiko aldearen gainean 5 milimetroko lodiera duen txokolate-geruza ipintzen baldin bada, zein da pastelaren goiko aldea estaltzeko behar den txokolatearen bolumena?

(Gogoratu 1m^3 1000 litroren baliokidea dela)


- 3,5 litro
- 7,5 litro
- 35 litro
- 75 litro

EGOERA	PASTELA
DIMENTSIOA	Dimentsio 1: PROBLEMEN EBAZPENA
EBALUAZIO IRIZPIDEA	<p>DBH2_3_LH6_2_ Geometria analitiko lauari eta planoaren eta espazioaren irudikapenei buruzko ezagutzak erabiltzea problemak ebazteko. Mundu fisikoko objektuen eta espazioen luzerak, azalerak eta bolumenak zenbatestea eta kalkulatzeko, eta neurketa-prozesuak ulertzea, zenbatespenaren edo kalkuluaren emaitza neurketa-unitate egokienean adierazita</p>
	<p>Objektuen eta espazioen luzerak, azalerak eta bolumenak zenbatestea eta kalkulatzeko, zenbatespenaren edo kalkuluaren emaitza neurketa-unitate egokienean adierazita, neurketa-prozesuak ulertuta eta inguruko problemen ebazpenetan aplikatuta.</p>
LORPEN ADIERAZLEA	1.3.8. Irudi eta gorputz ezagunen perimetroa, azalera eta bolumenak kalkulatzeko dagozkien formulak aplikatzen ditu.
MAILA	1.3.8.2. Gainerako irudi lauen azalera kalkulatzeko formulak ezagutzen eta aplikatzen ditu: pentagonoa, hexagonoa, erronboa eta trapezioa; eta gorputz geometrikoen azalera eta bolumena: prisma eta zilindroa
SAILKAPENA	1.3.8.2
SOLUZIOA	c) 7,5 L
KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA	KONPETENTZIA ESPEZIFIKO 1
HOBKUNTZAK	

ITEM 7

Jai batzordeak pastelaren apaingarriak zozkatu nahi ditu.

Horretarako, 100etik hasita hiru zifratako zenbaki guztiekin zozketa-billeteak prestatu dituzte.



Zozketa-billete horietako zenbatek dute zenbaki kapikua?

EGOERA	PASTELA
DIMENTSIOA	Dimentsio 2: ARRAZOIBIDE ETA PROBA
EBALUAZIO IRIZPIDEA	<p>DBH2_7__LH6_4_Aieruak eta frogapenak egitea, espermentatzea, argudiatzea, erlazionatzea, egiaztatzea, baliozkotzea, orokortzea eta partikularizatzea bizitza errealeko testuinguruetan, honako hauekin lotuta: geometria, funtzioak, estatistika eta zoria.</p>
	<p>Hainbat motatako problemak ebaztea eredu heuristikoren bat erabilita: enuntziatua aztertuz, estrategia egokiak hautatuz, egin beharreko kalkuluak eginez eta lortutako emaitza egiaztatuz.</p>
LORPEN ADIERAZLEA	2.7.2. Zenbait estrategia heuristikoak aztertzen eta erabiltzen ditu buruketa ebazteko.
MAILA	2.7.2.3. Hainbat estrategia heuristiko aztertu, ebaluatu eta aplikatzen ditu, problema ebazteko, garrantzitsuenak zein diren jakinda eta ondorio egokiak ateratzen ditu.
SAILKAPENA	2.7.2.3.
SOLUZIOA	90 zenbaki
KONPETENTZIA ESPEZIFIKOA	KONPETENTZIA ESPEZIFIKO 2
HOBKUNTZAK	

ITEM LIBERATUAK

Matematika

<https://isei-ivei.euskadi.eus/eu/ebaluazio-diagnostikoak/etapa-erdiko-ed/item-liberatuak/dbhko-2-maila>